

Instituciones nacionales de promoción y protección de los derechos humanos

Resolución 48/134 de la Asamblea General, de 20 de enero de 1993

La Asamblea General,

Recordando las resoluciones pertinentes relativas a las instituciones nacionales de protección y promoción de los derechos humanos, particularmente sus resoluciones 41/129, de 4 de diciembre de 1986 y 46/124, de 17 de diciembre de 1991, y las resoluciones de la Comisión de Derechos Humanos 1987/40, de 10 de marzo de 1987 1/, 1988/72, de 10 de marzo de 1988 2/, 1989/52, de 7 de marzo de 1989 3/, 1990/73, de 7 de marzo de 1990 4/, 1991/27, de 5 de marzo de 1991 5/, y 1992/54, de 3 de marzo de 1992 6/, y tomando nota de la resolución 1993/55 de la Comisión, de 9 de marzo de 1993 7/,

Destacando la importancia que revisten la Declaración Universal de Derechos Humanos 8/, los Pactos internacionales de derechos humanos 9/ y otros instrumentos internacionales para la promoción del respeto y la observancia de los derechos humanos y las libertades fundamentales,

Afirmando que debe darse prioridad a la elaboración de arreglos adecuados en el plano nacional para garantizar la aplicación efectiva de las normas internacionales en materia de derechos humanos,

Convencida del importante papel que esas instituciones pueden desempeñar en el plano nacional en lo que respecta a la promoción y protección de los derechos humanos y las libertades fundamentales y a la formación e intensificación de la conciencia pública

Giza Eskubideak sustatzeko eta babesteko nazio-erakundeak

Biltzar Orokorraren 48/134 Ebazpena, 1993. urteko abenduaren 20koa

Biltzar Orokorrak,

Gogoratu giza eskubideak sustatzeko eta babesteko nazio-erakundeei buruzko ebazpen egokiak, batik bat, 41/129 ebazpena, 1986. urteko abenduaren 4koa, 46/124, 1991. urteko abenduaren 17koa, eta Giza Eskubideen Batzordearen 1987/40, 1987. urteko martxoaren 10ekoa (1); 1988/72, 1988. urteko martxoaren 10ekoa (2); 1982/52, 1989. urteko martxoaren 7koa (3); 1990/73, 1990. urteko martxoaren 7koa (4); 1991/27, 1991. urteko martxoaren 5ekoa (5) eta 1992/54, 1992. urteko martxoaren 3koa (6); eta aintzat hartuta Batzordearen 1993/55 ebazpena, 1993. urteko martxoaren 9koa (7),

Azpimarratuz Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (8), giza eskubideen nazioarteko Itunek (9), eta nazioarteko beste instrumentuek duten garrantzia, giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetua eta betetzea sustatzeko,

Baieztatuz konponbide egokiak nazio-mailan egiteari eman behar zaiola lehentasuna, giza eskubideen esparruan nazioarteko arauak egoki aplikatzen direla bermatzeko,

Sinetsita erakunde horiek zeregin pisutsua bete dezaketela nazio-mailan, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak sustatzeari eta babesteari dagokienez, eta, oro har, jendeari eskubide eta askatasun horien kontzientzia sortzeko eta indartzeko,

respecto de esos derechos y libertades, Reconociendo que las Naciones Unidas pueden desempeñar una función catalizadora que contribuya al establecimiento de instituciones nacionales, en su calidad de centro de intercambio de información y experiencia,

Teniendo presentes a ese respecto las directrices sobre la estructura y el funcionamiento de las instituciones nacionales y locales de promoción y protección de los derechos humanos, que la Asamblea General hizo suyas en su resolución 33/46, de 14 de diciembre de 1978,

Acogiendo con agrado el creciente interés existente en todo el mundo por la creación y el fortalecimiento de instituciones nacionales, que se ha manifestado durante la Reunión Regional para África de la Conferencia Mundial de Derechos Humanos, celebrada en Túnez del 2 al 6 de noviembre de 1992, la Reunión Regional para América Latina y el Caribe, celebrada en San José del 18 al 22 de enero de 1993, la Reunión Regional para Asia, celebrada en Bangkok del 29 de marzo al 2 de abril de 1993, el Seminario del Commonwealth sobre las instituciones nacionales de derechos humanos, celebrado en Ottawa del 30 de septiembre al 2 de octubre de 1992, y el Seminario Regional para Asia y el Pacífico sobre cuestiones de derechos humanos, celebrado en Yakarta del 26 al 28 de enero de 1993, y que se ha demostrado en las decisiones anunciadas recientemente por varios Estados Miembros de establecer instituciones nacionales de promoción y protección de los derechos humanos, Teniendo en cuenta la Declaración y Programa de Acción de Viena 10/, en que la Conferencia Mundial de

Gogoratzuz Nazio Batuek bete dezaketzen eginkizun eragilea, nazio-erakundeak ezartzeko, informazioa eta esperientzia trukatzeko gunea diren heinean,

Kontuan harturik horren inguruan giza eskubideak sustatzeari eta babesteari buruzko nazio-erakundearen zein tokikoen egitura eta jardueren jarraibideak, hain zuzen ere, Biltzar Orokorrak, 1978. urteko abenduaren 14an, 33/46 ebazpenean bere egin zituenak,

Begi onez ikusirik nazio-erakundeak sortu eta indartzeko mundu osoan handituz doan interesa, hori adierazi zela ondorengo bilereetan, alegia, 1992. urteko azaroaren 2tik 6ra arte Tunisian egin zen Giza Eskubideen Munduko Konferentziaren Afrikarako Erregio-mailako Bileran, 1993. urteko urtarrilaren 22an San Josen egin zen Latinoamerika eta Kariberako Erregio-mailako Bileran, 1993. urteko martxoaren 29tik apirilaren 2ra Bangkokon egin zen Asiarako Erregio-mailako Bileran, 1992. urteko irailaren 30etik urriaren 2ra Ottawan, giza eskubideen nazio-erakundeei buruz egin zen Commonwealth delakoaren Mintegian, eta 1993. urteko urtarrilaren 26tik 28ra Yakartan, giza eskubideen arazoei buruz egin zen Asia eta Pazifikorako Erregio-mailako Mintegian; izan ere, interes berbera erakutsi dute berrikitan estatu kide batzuen erabakiek, giza eskubideak sustatu eta babesteko nazio-erakundeak ezartzeko,

Kontuan izanik Vienako Adierazpen eta Egintza Programa (10), hor berretsi baitzuen Giza Eskubideen Munduko

Derechos Humanos reafirmó el importante y constructivo papel que desempeñan las instituciones nacionales de promoción y protección de los derechos humanos, en particular en lo que respecta a su capacidad para asesorar a las autoridades competentes y a su papel en la reparación de las violaciones de los derechos humanos, la divulgación de información sobre esos derechos y la educación en materia de derechos humanos,

Observando los diversos criterios que se adoptan en el mundo para la promoción y protección de los derechos humanos en el plano nacional, subrayando la universalidad, la indivisibilidad y la interdependencia de todos los derechos humanos y destacando y reconociendo el valor de esos criterios para fomentar el respeto universal y la observancia de los derechos humanos y las libertades fundamentales,

1. Toma nota con satisfacción del informe actualizado del Secretario General 11/, preparado de conformidad con la resolución 46/124 de la Asamblea General, de 17 de diciembre de 1991;
2. Reafirma la importancia de establecer, de conformidad con la legislación nacional, instituciones nacionales eficaces de promoción y protección de los derechos humanos, así como de mantener el pluralismo de su representación y su independencia;
3. Alienta a los Estados Miembros a establecer instituciones nacionales de promoción y protección de los derechos humanos, o a fortalecerlas cuando ya existan, y a incorporar esos elementos en sus planes nacionales de desarrollo;
4. Alienta a las instituciones nacionales de promoción y protección de los derechos humanos establecidas por los Estados Miembros a impedir y combatir

Konferentziak nazio-erakundeek betetzen duten zeregin garrantzitsu eta eraikitzailea, giza eskubideak sustatzeko eta babesteko, batik bat, agintaritza eskudunei aholkua emateko duten gaitasunari dagokionez eta euren zereginari dagokionez, giza eskubideen urraketak konpontzeko eta giza eskubideei buruzko informazioa zabaltzeko eta horien inguruko hezkuntza gauzatzeko,

Ikusirik munduan zehar erabiltzen diren hainbat irizpide, nazio-mailan giza eskubideak sustatzeko eta babesteko; azpimarratuz giza eskubideen unibertsaltasuna, zatiezintasuna eta horien arteko lotura eta nabaritzuz eta aitortuz irizpide horien balioa, giza eskubide eta oinarrizko askatasunen errespetu unibertsala eta eragina sustatzeko,

1. Gogoan hartzen du idazkari nagusiaren txosten gaurkotua 11/, Biltzar Orokorrak, 1191. urteko abenduaren 17an, 46/124 Ebazpenaren arabera egindakoa;
2. Berresten du giza eskubideak sustatzeko eta babesteko, nazio-legeriarekin bat etorritik, nazio-erakunde eraginkorrek ezartzeak duen garrantzia, eta, orobat, horien ordezkarien aniztasuna eta independentzia gordetzeak duena;
3. Bultzatzen ditu estatu kideak ezar ditzaten giza eskubideak sustatu eta babesteko nazio-erakundeak, edota halakoak daudenean horiek indartzeko, eta kontuan har ditzaten osagai horiek garapenerako plan nazionaletan;
4. Bultzatzen ditu estatu kideak giza eskubideak sustatzeko eta babesteko ezarritako nazio-erakundeek Vienako Adierazpenean eta Egintza Programan

todas las violaciones de los derechos humanos que se indican en la Declaración y Programa de Acción de Viena y en los instrumentos internacionales pertinentes;

5. Pide al Centro de Derechos Humanos de la Secretaría que continúe tratando de estrechar la cooperación entre las Naciones Unidas y las instituciones nacionales, particularmente en lo que respecta a los servicios de asesoramiento y la asistencia técnica, la información pública y la educación, incluso en el marco de la Campaña Mundial de Información Pública sobre los Derechos Humanos;

6. Pide también al Centro de Derechos Humanos que establezca, a petición de los Estados interesados, centros de las Naciones Unidas para la documentación y la capacitación en materia de derechos humanos, y que lo haga basándose en los procedimientos establecidos para la utilización de los recursos disponibles dentro del Fondo de las Naciones Unidas de Contribuciones Voluntarias para Servicios de Asesoramiento y Asistencia Técnica en Materia de Derechos Humanos;

7. Pide al Secretario General que responda favorablemente a las peticiones de asistencia que formulen los Estados Miembros para el establecimiento y fortalecimiento de instituciones nacionales de promoción y protección de los derechos humanos, como parte del programa de servicios de asesoramiento y cooperación técnica en la esfera de los derechos humanos, así como de centros nacionales para la documentación y la capacitación en materia de derechos humanos;

8. Alienta a todos los Estados Miembros a que adopten las medidas adecuadas

eta gainerako nazioarteko instrumentuetan adierazitako giza eskubideen urraketa guztiak galarazi eta eragotzi ditzaten;

5. Eskatzen dio Idazkaritzaren Giza Eskubideen Zentroari jarrai dezala ahaleginak egiten Nazio Batuen eta nazio-erakundeen arteko lankidetzaren indartzeko, batez ere, aholkularitza-zerbitzuei, laguntza teknikoari, informazio publikoari eta hezkuntzari dagokienez, baita Giza Eskubideei buruzko Informazio publikoaren Munduko Kanpainaren barruan ere;

6. Eskatzen dio, halaber, Giza Eskubideen Zentroari, berak ezar ditzala, estatu interesdunek hala eskatuta, giza eskubideen arloko Nazio Batuen dokumentazio- eta gaikuntza-zentroak, eta halakoak egin ditzala baliabideak erabiltzeko ezarrita dauden jardunbideak oinarri hartuta; baliabide horiek izango dira, izan ere, Giza Eskubideen esparruan aholkularitza-zerbitzuak eta laguntza teknikoa emateko Borondatezko Kontribuzioen arloko Nazio Batuen Fondoak erabilgarri dituen baliabideak,

7. Eskatzen dio idazkari nagusiari eman dezala aldeko erantzuna nazio-erakundeak ezartzeko eta indartzeko, estatu kideek egin ditzaketan laguntza-eskabideei, zertarako eta giza eskubideak sutatzeko eta babesteko; eta hori guztiori giza eskubideen esparruko aholkularitza-zerbitzuen eta lankidetzaren teknikoaren programaren zatia izan dadin; orobat, giza eskubideen esparruko dokumentazio eta gaikuntzarako nazio-erakundeak ezartzeko eta indartzeko,

8. Bultzatzen ditu estatu kide guztiak har ditzaten neurri egokiak, informazio-

para fomentar el intercambio de información y experiencia acerca del establecimiento y el funcionamiento efectivo de esas instituciones nacionales;

9. Afirma el papel que corresponde a las instituciones nacionales como organismos para la difusión de materiales sobre derechos humanos y para otras actividades de información pública preparadas u organizadas con el auspicio de las Naciones Unidas;

10. Acoge con agrado la organización, con los auspicios del Centro de Derechos Humanos, de una reunión complementaria en Túnez, en diciembre de 1993, con miras, en especial, a examinar los medios y arbitrios de promover la asistencia técnica para la cooperación y el fortalecimiento de las instituciones nacionales, y continuar examinando todos los aspectos relativos a la cuestión de las instituciones nacionales;

11. Acoge también con agrado los Principios relativos al estatuto de las instituciones nacionales que figuran como anexo a la presente resolución;

12. Alienta el establecimiento y fortalecimiento de instituciones nacionales teniendo en cuenta esos principios y reconociendo que todos los Estados tienen el derecho de elegir el marco que resulte más adecuado a sus necesidades especiales en el plano nacional;

13. Pide también al Secretario General que informe a la Asamblea General en su quincuagésimo período de sesiones sobre la aplicación de la presente resolución.

85ª sesión plenaria

20 de diciembre de 1993

ANEXO

Principios relativos al estatuto de las

eta esperientzia-trukaketa sustatzeko, nazio-erakunde horiek nola ezarri eta horien jardunbide eraginkorra nola gauzatu behar den gaiaren inguruan;

9. Baieztatzen du nazio-erakundeei dagokien zeregina, giza eskubideei buruzko materialak hedatzeko eta informazio publikoaren beste jarduera batzuetarako erakundeak diren heinean, jarduera horiek Nazio Batuen babespean egin eta antolatzen direnean;

10. Atsegin handiz hartu du, Tunisian, 1993. urteko abenduan, Giza Eskubideen Zentroaren menpe egindako bilera osagarriaren antolaketa, bereziki, nazio-erakundeen lankidetzari eta indartzeari begira, laguntza teknikoa sustatzeko baliabide eta bitartekoak aztertzeo asmoz, eta nazio-erakundeen arazoaren inguruan, alderdi guztiak aztertzen jarraitzeo asmoz;

11. Atsegin handiz hartzen du, halaber, nazio-erakundeen estatutuari buruzko Printzipioak, ebazpen honen eranskinean adierazten direnak;

12. Bultzatzen du nazio-erakundeak ezartzea eta indartzea, printzipio horiek aintzat hartuta eta aitortuta estatu guztiek dutela eskubidea nazio-mailan euren betebeharrak bereziki egokien zaien esparrua aukeratzeko,

13. Eskatzen dio, berebat, idazkari nagusiari informazioa eman diezaiola Biltzar Orokorrari, berrogeita hamargarren bilkura-aldian, ebazpen honen aplikazioari buruz.

85. osoko bilkura

1993ko abenduaren 20an

ERANSKINA

Nazio-erakundeen estatutuari

instituciones nacionales

Competencia y atribuciones

1. La institución nacional será competente en el ámbito de la promoción y protección de los derechos humanos.

2. La institución nacional tendrá el mandato más amplio posible, claramente enunciado en un texto constitucional o legislativo, que establezca su composición y su ámbito de competencia.

3. La institución nacional tendrá, entre otras, las siguientes atribuciones:

a) Presentar, a título consultivo, al gobierno, al parlamento y a cualquier otro órgano pertinente, a instancia de las autoridades interesadas o en ejercicio de su facultad de actuar de oficio, opiniones, recomendaciones, propuestas e informes sobre todas las cuestiones relativas a la promoción y protección de los derechos humanos; la institución nacional podrá decidir hacerlos públicos; las opiniones, las recomendaciones, las propuestas y los informes, así como cualquier prerrogativa de la institución nacional, abarcarán las siguientes esferas:

i) Todas las disposiciones de carácter legislativo y administrativo, así como las relativas a la organización judicial, destinadas a preservar y ampliar la protección de los derechos humanos; a este respecto, la institución nacional examinará la legislación y los textos administrativos en vigor, así como los proyectos de ley y las propuestas y hará las recomendaciones que considere apropiadas para garantizar que esos textos respeten los principios fundamentales en materia de derechos humanos; en caso necesario, la institución nacional recomendará la aprobación de una nueva legislación, la modificación de la legislación en vigor y

buruzko Printzipioak

Eskuduntza eta eskumenak

1. Giza eskubideak sustatzeko eta babesteko arloan, nazio-erakundea izango da eskuduna.

2. Nazio-erakundearen mandatua ahalik eta zabalena izango da, testu konstituzional eta legegile batean adieraziko da eta bertan jasoko da bere osaera eta eskuduntza-esparrua.

3. Nazio-erakundeak, besteak beste, ondorengo eskumenak izango ditu:

a) Gobernuari, parlamentuari eta beste edozein organo egokiri, agintaritza interesdunek hala eskatuta edo ofizioz jarduteko ahalmena erabilita, giza eskubideak sustatze eta babesteari buruzko alderdi guztien gaineko iritzia, gomendioak, proposamenak eta txostenak aurkeztea, aholku-emaile izaeraz; nazio-erakundeak erabakiko du horiek publiko egitea; iritzia, gomendioak, proposamenak eta txostenak, eta nazio-erakundearen edozein eskumen ondorengo arloetara zabalduko dira:

i) Legegintza- eta administrazio-izaerako xedapen guztiak, eta antolakuntza judizialari buruzkoak, giza eskubideen babesa gordetzera eta hedatzera bideratutakoak; horren inguruan, nazio-erakundeak aztertuko ditu legeria eta indarrean dauden administrazio-testuak, eta baita lege-proiektuak eta -proposamenak ere, eta giza eskubideen arloan oinarritako printzipioak bermatzeko egoki irizten zaizkion gomendioak egingo ditu; beharrezkoa denean, nazio-erakundeak gomendatuko du, orobat, legeria berria onestea, indarrean dagoen legeria eraldatzea eta administrazio-neurriak onartzea edo eraldatzea;

la adopción de medidas administrativas o su modificación;

ii) Toda situación de violación de los derechos humanos de la cual decida conocer de oficio;

iii) La elaboración de informes sobre la situación nacional en materia de derechos humanos en general o sobre cuestiones más específicas;

iv) Señalar a la atención del gobierno las situaciones de violación de los derechos humanos en todo el país, proponer medidas encaminadas a poner término a esas situaciones y, en su caso, emitir una opinión sobre la posición y reacción del gobierno;

b) Promover y asegurar que la legislación, los reglamentos y las prácticas nacionales se armonicen con los instrumentos internacionales de derechos humanos en los que el Estado sea parte, y que su aplicación sea efectiva;

c) Alentar la ratificación de esos instrumentos o la adhesión a ellos y asegurar su aplicación;

d) Contribuir a la elaboración de los informes que los Estados deban presentar a los órganos y comités de las Naciones Unidas, así como a las instituciones regionales, en cumplimiento de las obligaciones que les imponen los tratados y, en su caso, emitir una opinión a ese respecto, en el marco del respeto de su independencia;

e) Cooperar con las Naciones Unidas y las demás organizaciones del sistema de las Naciones Unidas, las instituciones regionales y las instituciones de otros países que sean competentes en las esferas de la promoción y protección de los derechos humanos;

ii) Giza eskubideen urraketa-egoera oro, ofizioz horren jakitun izatea erabakitzen badu;

iii) Giza eskubideen arloan orokorrean edo beste arazo bereziagoaren gainean, egoera nazionalari buruzko txostenak egitea;

iv) Gobernuari ohartaraztea herrialde osoan egon daitezkeen giza eskubideen urraketa-egoerak, egoera horiek bukatzera bideratutako neurriak proposatzea eta, hala denean, iritzi bat ematea egoerari buruz eta horren aurrean, gobernuak izan duen erantzunari buruz;

b) Legeria, erregelamenduak eta eginera nazionalak, estatua giza eskubideen zein nazioarteko instrumenturen alderdi izan eta aurreko xedapen horiek, nazio-mailakoak zein nazioartekoak bateratzeko ahaleginak sustatzea eta hori ziurtatzea, euren aplikazioa eraginkorra izan dadin,

c) Instrumentu horien berrespena edota horiekiko atxikimendua bultzatzea eta horien aplikazioa ziurtatzea;

d) Estatuek Nazio Batuen organoei eta batzordeei, eta erregio-mailako erakundeei aurkeztu beharreko txostenak egiten parte hartzea, itunek ezarritako betebeharrak betetzeko eta, hala denean, horren inguruan iritzi bat ematea, betiere nazio-mailako erakundeari zor zaion independentziaren errespetuaren barrunbean;

e) Nazio Batuekin eta Nazio Batuen sistemaren gainerako erakundeekin, erregio-mailako erakundeekin eta giza eskubideak sustatzeko eta babesteko esparruetan eskumena duten beste herrietako erakundeekin lankidetzan aritzea;

f) Colaborar en la elaboración de programas relativos a la enseñanza y la investigación en la esfera de los derechos humanos y participar en su aplicación en el ámbito escolar, universitario y profesional;

g) Dar a conocer los derechos humanos y la lucha contra todas las formas de discriminación, en particular la discriminación racial, sensibilizando a la opinión pública, en particular mediante la información y la enseñanza, recurriendo para ello a todos los medios de comunicación.

Composición y garantías de independencia y pluralismo

1. La composición de la institución nacional y el nombramiento de sus miembros, por vía de elección o de otro modo, deberán ajustarse a un procedimiento que ofrezca todas las garantías necesarias para asegurar la representación pluralista de las fuerzas sociales (de la sociedad civil) interesadas en la promoción y protección de los derechos humanos, en particular mediante facultades que permitan lograr la cooperación eficaz o la participación de los representantes de:

a) Las organizaciones no gubernamentales competentes en la esfera de los derechos humanos y la lucha contra la discriminación racial, los sindicatos, las organizaciones socioprofesionales interesadas, en particular juristas, médicos, periodistas y personalidades científicas;

b) Las corrientes de pensamiento filosófico y religioso;

c) Los universitarios y especialistas calificados;

d) El parlamento;

e) Las administraciones (de incluirse, sus representantes sólo participarán en

f) Giza eskubideen esparruan, hezkuntzari eta ikerketari buruzko programak egiten elkarrekin lan egitea eta eskola-, unibertsitate- eta lanbide-arloetan hori aplikatzen parte hartzea;

g) Giza eskubideak eta bereizkeria forma guztien aurkako borroka gizarteratzea, batik bat, arraza-bereizkeria eta iritzi publikoa giotzea, gehienbat, informazio eta irakaskuntzaren bitartez, eta horretarako komunikabide guztiak erabiltzea.

Nazio-erakundeen osaera eta euren independentzia eta aniztasunaren bermeak

1. Nazio-erakundea osatzeko eta horren kideak hautaketa bidez zein beste modu batez izendatzeko prozedurak beharrezko berme guztiak eskaini behar ditu, giza eskubideak sustatzeko eta babesteko interesa duten indar sozialen (gizarte zibilaren) ordezkariaren aniztasuna ziurtatzeko; indar horiek interesaturik daude giza eskubideen sustapen eta babesean, batik bat, ahalmen batzuen bidez, horiek ahalbidetzen dutela jarraikoen ordezkarien lankidetzara eraginkorra edota partaidetza:

a) Giza eskubideen esparruan eta arraza-bereizkeriaren aurkako borrokan gobernu kanpoko erakunde eskudunak, sindikatuak, erakunde sozioprofesional interesdunak, batez ere, juristak, medikuak, kazetariak eta zientifiko ospetsuak;

b) Pentsamolde filosofiko eta erlijioso desberdinak,

c) Unibertsitateko irakasleak eta sona handiko adituak;

d) Parlamentua;

e) Administrazioak (horiek sartuz gero, ordezkariak eztabaidetan bakar-

los debates a título consultivo).

2. La institución nacional dispondrá de una infraestructura apropiada para el buen desempeño de sus funciones, y en particular de fondos suficientes.

Esos fondos deberán destinarse principalmente a la dotación de personal y locales propios, a fin de que la institución sea autónoma respecto del gobierno y no esté sujeta a un control financiero que pueda afectar su independencia.

3. En interés de la estabilidad del mandato de los miembros de la institución nacional, sin la cual no habrá una verdadera independencia, su nombramiento se hará mediante acto oficial en el que se señale un plazo determinado de duración de su mandato.

Ese mandato podrá prorrogarse, bajo reserva de que se siga garantizando el pluralismo de su composición.

Modalidades de funcionamiento

En el marco de sus actividades, la institución nacional deberá:

- a) Examinar libremente todas las cuestiones comprendidas en el ámbito de su competencia, que le sean sometidas por el gobierno o que decida conocer en virtud de sus atribuciones, a propuesta de sus miembros o de cualquier solicitante;
- b) Recibir todos los testimonios y obtener todas las informaciones y documentos necesarios para el examen de las situaciones comprendidas en el ámbito de su competencia;
- c) Dirigirse a la opinión pública directamente o por intermedio de todos los órganos de comunicación, especialmente para dar a conocer sus opiniones y recomendaciones;
- d) Reunirse de manera regular y cada vez que sea necesario, en presencia de

bakarrik aholku-emaile gisa parte hartuko dute);

2. Nazio-erakundeak azpiegitura egokia eta funts nahikoak izango ditu, bere eginkizunak ondo bete ahal dituzan.

Funts horiek gehienbat langileak eta lokal propioak lortzera bideratuko dira, erakundea gobernuarekiko autonomia izan dadin eta bere independentzia ukitzen duen finantza-kontrol bati lotuta egon ez dadin.

3. Nazio-erakundearen kideen mandatuaren egonkortasunari begira, hori gabe benetako independentziarik ez baitago, kideak ekitaldi ofizialean izendatuko dira, eta bertan zehaztuko da kideen agintaldiaren iraupena.

Agintaldi hori luzatu ahal izango da, betiere osakeraren aniztasuna bermatuta badago.

Jardunbide-moduak

Nazio-erakundearen egitekoak dira, bere jardueraren esparruan:

- a) Bere eskuduntza-esparruari dagozkion arazo guztiak, gobernuaren eraginpean daudenak zein bere eskumenen arabera ezagutu nahi dituztenak, askatasunez aztertzea, kideek edo edozein eskatzailek hala eskatuta,
- b) Lekukotza guztiak jasotzea eta bere eskuduntza-esparruan barneratutako egoeren azterketarako beharrezko informazio eta agiriak eskuratzea;
- c) Iritzi publikoari zuzentzea, zuzenean nahiz komunikabide-organo guztien bidez, batez ere, bere iritzia eta gomendioak jakinarazteko;
- d) Kide guztiak erregularitasunez biltzea, edota halakoa beharrezkoa den

todos sus miembros, debidamente convocados;

e) Establecer grupos de trabajo, cada vez que sea necesario, así como secciones locales o regionales para facilitar el desempeño de sus funciones;

f) Mantener la coordinación con los demás órganos, de carácter jurisdiccional o de otra índole, encargados de la promoción y protección de los derechos humanos (en particular, ombudsman, mediador u otras instituciones similares);

g) Establecer relaciones con organizaciones no gubernamentales que se ocupen de la promoción y protección de los derechos humanos, el desarrollo económico y social, la lucha contra el racismo, la protección de los grupos especialmente vulnerables (en particular, niños, trabajadores migratorios, refugiados, personas con discapacidades físicas y mentales) u otras esferas especializadas, habida cuenta del papel fundamental que desempeñan esas organizaciones como medio de ampliar la acción de las instituciones nacionales.

Principios complementarios relativos al estatuto de las comisiones dotadas de competencia cuasijurisdiccional

La institución nacional podrá estar facultada para recibir y examinar denuncias y demandas relativas a situaciones particulares.

Podrán recurrir a ella los particulares, sus representantes, terceros, organizaciones no gubernamentales, asociaciones y sindicatos y cualquier otra organización representativa.

En ese caso, y sin perjuicio de los principios antes mencionados que se refieren a otros aspectos de la competencia de las comisiones, las funciones que se les encomienden

bakoitzean, eta horretarako deialdiak behar bezala egitea;

e) Lan-taldeak ezartzea, halakoa beharrezkoa den bakoitzean, eta baita tokiko nahiz erregio-mailako atalak ere, bere eginkizunen jarduna errazteko;

f) Giza eskubideak sustatzeko eta babesteko ardura duten gainerako organoekin, horiek jurisdikzio izaerakoak izan ala ez, koordinaziopean aritzea (bereziki, arartekoa, bitartekaria edota antzeko erakundeak);

g) Gobernuz kanpoko erakundeekin harremanak ezartzea, horien ardura denean giza eskubideak sustatzea eta babestea, ekonomia eta gizartea garatzea, arrazakeriaren aurkako borroka, bereziki ahulak diren taldeak babestea (batez ere, haurrak, langile migratzaileak, errefuxiatuak, desgaitasun fisikoak eta mentalak dituzten pertsonak), eta beste arlo berezi batzuk, kontuan hartuta erakunde horiek duten zeregin garrantzitsua, nazio-erakundeen eragina hedatzearen aldetik.

Kuasijurisdikzio-eskuduntza duten batzordeen estatutuari buruzko printzipio osagarriak

Nazio-erakundeak ahalmena izango du egoera partikularrei buruzko salaketak eta demandak jaso eta aztertzeko.

Beregana jo dezakete partikularrek, horien ordezkariak, hirugarrenek, gobernuz kanpoko erakundeek, elkarte eta sindikatuek eta beste edozein ordezkartza-erakundek.

Kasu horretan, aurretiaz aipatu eta batzordeen eskuduntzen barruan dauden beste gai batzuei buruzko printzipioei kalterik egin gabe, nazio-erakundeari ematen zaizkion

podrán inspirarse en los siguientes principios:

a) Tratar de hallar una solución amistosa mediante la conciliación o, dentro de los límites establecidos por ley, mediante decisiones obligatorias o, en su caso, cuando sea necesario, siguiendo un procedimiento de carácter confidencial;

b) Informar al autor de la demanda acerca de sus derechos, en particular de los recursos de que dispone, y facilitarle el acceso a esos recursos;

c) Conocer de todas las denuncias o demandas o transmitir las a cualquier otra autoridad competente, dentro de los límites establecidos por ley;

d) Formular recomendaciones a las autoridades competentes, en particular proponer adaptaciones o reformas de leyes, reglamentos y prácticas administrativas, especialmente cuando ellas sean la fuente de las dificultades que tienen los demandantes para hacer valer sus derechos.

1/ Véase Documentos Oficiales del Consejo Económico y Social, 1987, Suplemento Nº 5 y correcciones (E/1987/18 y Corr. 1 y 2), cap. II, secc. A.

2/ *Ibid.*, 1988, Suplemento Nº 2 y corrección (E/1988/12 y Corr. 1), cap. II, secc. A.

3/ *Ibid.*, 1989, Suplemento Nº 2 (E/1989/20), cap. II, secc. A.

4/ *Ibid.*, 1990, Suplemento Nº 2 y corrección (E/1990/22 y Corr.1), cap. II, secc. A.

5/ *Ibid.*, 1991, Suplemento Nº 2 (E/1991/22), cap. II, secc. A.

6/ *Ibid.*, 1992, Suplemento Nº 2 (E/1992/22), cap. II, secc. A.

7/ *Ibid.*, 1993, Suplemento Nº 3 (E/1993/23), cap. II, secc. A.

eginkizunak ondorengo printzipioetan oinarri daitezke:

a) Lagunarteko irtenbidea aurkitzen saiatzea, adiskidetzearen bitartez edota, legeak ezarritako mugen barruan, nahitaezko erabakien bitartez edo, hala denean, beharrezkoa bada, isilpeko prozedura baten bitartez;

b) Demanda-jartzaileari jakinaraztea bere eskubideak zein diren; batez ere, eskura dituen helegiteak, eta helegite horietarako bidea erraztea;

c) Salaketa edo demanda guztien berri jakitea edo horiek beste edozein agintaritza-eskuduni igortzea, betiere legeak ezarritako mugak kontuan hartuta;

d) Agintaritza eskudunei gomendioak egitea, batez ere, legeak, erregelamenduak eta administrazio-eginerak onartzeko edo eraldatzeko, noiz eta, horiek eragozpen-iturriak direnean, demanda-jartzaileek euren eskubideak baliatu ahal izateko.

(1) Ikus Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren agiri ofizialak, 1987, 5 zenbakidun Gehigarria eta zuzenketa (E/1987/18 eta hurrengoak. 1 eta 2), II. kapitulua, A atala.

(2) Ikus, 1988, 2 zenbakidun Gehigarria eta zuzenketa (E/1988/12 eta 1. zuz.), II. kapitulua, A atala.

(3) Ikus, 1989, 2 zenbakidun Gehigarria (E/1989/20), II. kap., A atala.

(4) Ikus, 1990, 2 zenbakidun Gehigarria eta zuzenketa (E/1990/22 eta 1. zuz.), II. kap., A atala.

(5) Ikus, 1991, 2 zenbakidun Gehigarria (E/1991/22), II. kap., A atala.

(6) Ikus, 1992, 2 zenbakidun Gehigarria (E/1992/22), II. kap., A atala.

(7) Ikus, 1993, 3 zenbakidun Gehigarria (E/1993/23), II. kap., A atala.

8/ Resolución 217 A (III).
9/ Resolución 2200 A (XXI), anexo.
10/ A/CONF.157/24 (Part I), cap. III.
11/ A/48/340.

8/ 217 A (III) Ebazpena.
9/ 2200 A(XXI) Ebazpenaren eranskina.
10/ A/KONF.157/24 (I zat.), III. kap.
11/ A/48/340.